

BAKAIKUKO ETXEA: COVID-19 PROTOKOLOA.

1.- SARRERA

Neurriak maila desberdinetan eman behar dira:

1. **Antolaketa neurriak.**
2. **Kolektiboaren babeserako neurriak.**
3. **Norberan babeserako neurriak.**

Neurri guzti hauek kontingentzia plan batean zehaztuko dira

2.- KONTINGENTZIA-PLANAREN NONDIK NORAKOAK

Langile (irakasle, sukaldari, eta bestelakoak) eta bezeroen (ikasleen) kutsatze arriskua ekiditzeko edo murrizteko jarraitu beharreko urratsak hurrengoak lirateke:

1. **Urratsa: Arriskua ekidin.** Kutsatze-arriskua eta gaixotasuna zabaltzeko arriskua ekiditzeko neurriak hartzea.
2. **Urratsa: Arriskuaren ebaluazioa.** Kutsatzeko arriskua 3 maila desberdinetan mailakatuko da (arrisku handia dutenak, arrisku txikia dutenak, arriskurik ez dutenak), horrela kasu bakoitzean hartu beharreko neurriak hobeto zehaztu ahal izango dira.
3. **Urratsa: Prebentzio jardueraren planifikazioa.** Aurretik zehaztu bezala...
 - a. antolaketa neurriak
 - b. kolektiboaren babesera neurriak
 - c. norberan babeserako neurriak
 - d. formakuntza eta informazioa
4. **Urratsa: Kontrol neurriak.** Kasuren bat, zalantzaszkoa bada ere, agertu ezker osakidetzarekin jarri harremanetan, eta ahalik eta zehaztapen handienarekin saiatu informatzen (azkenaldian izandako harremanak, sintomak...).

3.- ARRISKUAREN EBALUAZIOA

Kutsatzeko arriskuaren analisisia 3 maila desberdinetan emango da:

- **Arrisku handiena dutenak:** Haien aurrez-aurreko jarduna denboran luzatzen dena (ikasle-irakasle...), edota zaurgarriak diren kolektiboak (gaixo kronikoak, "adinekoak"...).
- **Arrisku txikia dutenak:** Aurrez-aurrekoa denbora tarte laburrean ematen denean (bulegoetan, sukaldean)
- **"Arriskurik" ez dutenak:** Beste batzuekin elkar eraginean ez dabiltzanak (mantenu-lanak, garbitzaileak, urrutiko jarduerak...)

4.- PREBENTZIO JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

4.a. ANTOLAKETA NEURRIAK (PROZEDURAK)

→ Barnetegia

◆ Ikasle-kopurua barnetegian.

Araudi orokorrak markatu bezala, barnetegiak %70eko okupazioa izango du, gehienez. **Logela bakoitzean 2-3 ikaslek** egingo dute lo, (gelaren okupazioaren %70tik behera). **Ohe eta ohatzeen arteko gutxieneko distantzia 2m-koa** izango da, eta **ohatzeen kasuan oheetako bat baino ezin** izango da **okupatu**. Elkarren arteko segurtasun **distantzia 1,5 m-koa izanik (<1,5 musukoekin)**, ikasle eta irakaslea seguru sentitzeko moduko espazioa eraikiko dugu.

◆ Ikasle-kopurua ikasgeletan.

Ikasgeletan erabiltzaileen (ikasle eta irakasleak) arteko **gutxieneko distantzia (1,5m)** bermatuko da, eta **musukoen erabilera derrigorrezkoa** izango da.

◆ Ikasleen kudeaketa.

Irakasle bakoitza izango da bere taldearen **kudeatzaile nagusia**. Ikasleak barnetegitik eta gelatara sartuko dira eta bide bera egingo dute amaitzean. **Behar duten informazio guztia irakasleak emango die**. Etxeko espazio desberdinetan ahalik eta joan-etorri gutxien egingo da. **Atsedenaldiak eta klase orduetatik kanpoko dinamikak etxetik kanpo** (beti ere espazio zabaletan) gauzatuko dira, eta **herriko jendearekin** izango dugun **kontaktu minimoa** izango da.

→ Garbiketa

◆ **Garbitzaileak** egunero egingo du **espazio komunen garbiketa** orokor eta sakona (goizean eta arratsaldean).

◆ **Irakasle eta ikasle bakoitzak bere gela txukun eta garbi** mantendu beharko du (DERRIGORREZ!!!!). Etxea eta logelak txukun eta garbi egotea **denon ardura** izango da.

→ Etxeko gune komunak

◆ **Etxeko gune desberdinetan protokoloari buruzko informazioa** eskuragarri eta ondo ikusteko moduan izango du pertsona orok. Bertan idatziz zein irudiz (piktograma edota seinale bidez) protokoloari buruzko jarraibideak egongo dira markatuta. Etxeko gune desberdinetan gel hidroalkoholdun dispensadoreak egongo dira.

◆ **Dutxen erabilera mugatua izango da (7:00-8:00 eta 19:00-20:00)**. **Komunen okupazioari** dagokionez, komun bakoitzaren sarreran **markatzen den kopuruak mugatuko du**.

◆ **Eskaileren** goranzko eta beheranzko joan-etorrietan, ahal dela **aldibereko norantza bietako erabilera sahiestuko da**.

- ◆ Logelak atsedenerako erabiliko dira eta bakoitzak berea. Erabat debekatuta egongo dira gelakideak ez direnen topaketak espazio horretan.
- ◆ Sukaldea eta jangela. Sukaldean sukaldaria eta laguntzailea baino ez dira sartuko. Jatordu desberdinetan haiek izango dira janaria manipulatuko duten bakarrak eta ikasle zein irakasleek jatorduetarako ezarritako **protokoloa** bete beharko dute:
 - Janariaren banaketa egiteko sukalde eta jantokiaren artean egokitutako espazioa erabiliko da.
 - Erabiltzaile bakoitza arduratuko da bere jana hartzeaz. Pilaketak sahiesteko, ilara eta txanda zaindu beharko dira.
 - Erabiltzaile bakoitza arduratuko da erabilitako mahai-tresnak banaketa gunera eramateaz.
- ◆ Egongela eta bertan dagoen materiala erabili ahal izango da normaltasunez, beti ere gutxieneko distantzia (1,5m) mantenduz eta erabiliko den materiala garbi mantenduz erabiltzen den aldi bakoitzeko (mahai-jokoak, ping-pong mahaia...).
- ◆ Lorategian musukorik ez da beharrezkoa izango gutxieneko distantzia mantentzen baldin bada (>1,5m).
- ◆ Gutxieneko distantzia (1,5m) betetzen ez den espazio eta momentu guztietan musukoaren erabilpena **DERRIGORREZKOA** izango da.

4.b. KOLEKTIBOAREN BABESERAKO NEURRIAK (praktika)

→ Etxea (osotasunean)

- ◆ Seinaleak eta kartelak (info)
- ◆ Musukoak
- ◆ Termometroa
- ◆ Garbiketa
- ◆ Material eta espazio egokituak (aulki, mahai, zakarrontzi...)




→ Gune Komunak

◆ Sarrera-irteera eta lorategia




◆ Sukaldea eta jangela



◆ Egongela



◆ Eskailera eta pasabideak



◆ Komunak



◆ Ikasgelak

Bakaikuko udalak utzitako udaletxeko gela desberdinak erabiliko dira.
Gela horietan hartuko diren neurri nagusienak hurrengoak dira:

- Jende-kopuru mugatua
- Material eta espazio egokituak (aulki, mahai, zakarrontzi...)
- Segurtasun-distantzia
- Garbiketa

→ **Garbiketa eta higieena**

- ◆ Seinaleak eta kartelak
 - garbitzeko jarraibideak ([ikus.](#))
 - garbitzaile eta ordutegi zerrenda (ikus.)

→ **Atsedena(k)**

- ◆ Segurtasun distantzia
- ◆ Osasun-neurriak

4.c. NORBERAREN BABESERAKO NEURRIAK

→ **Sukaldaria**

- ◆ Gel hidroalkoholikoa, musukoa eta lanerako ezinbestekoduen materiala

→ **Irakasle**

- ◆ Gel hidroalkoholikoa (norberarena eta espazio komunetan dispensadoreak), musukoa, pantaila, norberak lanerako ezinbesteko duen materiala.

→ **Ikasle**

- ◆ Gel hidroalkoholikoa (geletan eta espazio komunetan dispensadoreak), musukoa (ekartzea ahaztuko balitzaio).

→ **Bisitari**

- ◆ Gel hidroalkoholikoa (espazio komunetan dispensadoreak), musukoa (ekartzea ahaztuko balitzaio).

4.d. FORMAZIOA ETA INFORMAZIOA

→ **Formazioa**

- ◆ Langile orok protokolo eta jarraibideei buruzko formazioa jasoko du.

→ **Informazioa**

- ◆ Protokoloaren jarraibideak ([ikus.](#))
 - Ikasle, irakasle zein lankide guztiei informatuko zaie (mail bidez).
 - Espazio guztietan egongo da kontsultarako ikusgai.

5.- KONTROL NEURRIAK

Gaixotasunaren sintomak daudela susmatzen bada (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, ondoez orokorra...), informazioa profesionalengandik telefonoz jaso eta babes neurriak hartu behar dira inor ez kutsatzeko.

Osasunbidera deitu beharko da eta bertan profesionalek egoera baloratuko dute eta aholkuak, jarraibideak, emango dituzte.

Laborategiko emaitzak lortu arte, pertsona isolatuta mantenduko da, baieztatutako kasu baten aurrean ematen diren kontrol-neurriak jarraituz.